



Kostuak

Aguretxek zenbait kostu izango ditu hilabetero, aztertu ditzagun.

Alde batetik kostu finkoak izango ditugu, hala nola alokairua. Nahiz eta lokala oso prezio onean alokatzeko aukera izan, kostu finko altuena izango da. Hortaz gain ura eta argindarraren gastuak kontuan izan behar ditugu, hilabetero hasiko direla estimatzen ditugunak. Ordenagailuak erabiliko ditugunez, wifia-ren prezioa ordaindu beharko dugu hilabetero. Publizitatea eta webgunearen mantentzea ere izango dira gastuak. Langileen soldatak kostu finkoen alderdian sartzea erabaki dugu, nahiz eta etorkizunari begira monitore gehiago kontratatzeke asmoa dugun.

Bestalde, gure zerbitzua betetzeko beharko ditugun kostu aldakorrak daude. Hauek, diru-sarreraren antzera, bezero kopuruaren arabera izango dira. Hemen, adibidez, bulego materiala azpinmarratu dezakegu.

Hurrengo taulan lehen hilabeteko gastuak adierazi ditugu:

	KOSTUA (Hilero)	KANTITATEA	TOTALA
LOKALA	700€	x1	700€
ARGIA	410€	x1	410€
URA	37,10€	x1	37,10€
WIFI-A	29€	x1	29€
SOLDATA/LANGILE	1056€	x5	5280€
BESTELAKO MATERIALAK	1275,41€	x1	1275,41€
TOTALA			7731,51€ <small>mirio</small>